


SARBIDEEN PLANOA ETA APARKALEKUEN KOKAPENA



www.petronor.eus

ETENALDIA

1. PLANTA


ERAGINKORTASUNA
ETA BERRIKUNTZA

2019

50^{urte/años}
Petronor

BESTE ETENALDI BAT
Urrats bat gehiago
etorkizuneko Petronorri begira

maiatzak 27 - ekainak 15



2019ko bigarren Etenaldia urrats bat gehiago da segurua-
goa, digitalagoa, eraginkorragoa eta lehiakorragoa den Petronor
eraikitze orduan. Berrikuntzaren bidean aurrera egiten jarraitzeko
beste aukera bat.

4.0. Petronor. Berrikuntza eta digitalizazioa etorkizunari begira



Inolako zalantzarik gabe, **ingurune digitala Petronorren** hurrengo urtee-
tako **hazkuntzaren eta arrakastaren** funtsezko zutabeetakoa da.

Hartara, epe ertain eta luzeari begira, **gure instalazioen modernizazioak eta hobekuntzak** findegiko sistemen digitalizazioan sakontzea dute hel-
buru, bilakaera tekniko horren ondorioz **segurtasuna zein eraginkortasun energetikoa handiagoak izango direla eta etorkizuneko aukerak ugariak izango direla** kontuan hartuta.

Egunez egun, etorkizuneko Petronor eraikitzen dugu, eta, asmo handiko proiektu horretan, zure laguntza jasotzen jarraitu nahi dugu.

Zertan datza 1. Plantako Etenaldia?

Bigarren Etenaldi honetan, **findegiko 1. Plantako jarduera hila-
betez murriztuko da gutxi gorabehera**. Epealdi horretan, insta-
lazioen berrikuspena, artapena eta eguneraketa teknologikoa egingo
ditugu.

Guztion mesederako etorkizuneko inbertsioa

1. Plantako Etenaldiaren ondorioz, **lehen mailako inbertsio be-
rria** egingo da, findegiko instalazioak hobetzeko: 27 milioi euro,
artapenean; eta 22, inbertsioetan. Horrela, maila guztietan **le-
hiakorragoa den Petronorren** hazia ereingo da.

Horrez gain, bigarren Etenaldi honetan, aldi baterako **lanpostu
asko** ere sortu eta **tokiko hainbat enpresa** kontratatuko
dira. Hori dela eta, azken batean, Petronor inguruko
ekonomia eta aberastasunaren sorrera bultzat-
tuko dira nabarmen.

Lana · Aberastasuna · Berrikuntza: Etenaldia zenbakitan



1.200 LANGILEK
ere egunero lan egingo dute
Etenaldian.



40 ENPRESA KONTRATISTA
%40 Euskadikoak
izango dira.



49 MILLOI EURO-ko
inbertsioa gure instalazioen
hobekuntzan.

